



DEIALDIA, BARAÑAINGO UDALEAN MANTENTZE-LANETAKO OFIZIALA IZATEKO ALDI BATERAKO KONTRATAZIORAKO IZANGAIEN ZERRENDA ERATZEKO. OINARRI ARAUTZAILEAK.

1.– ARAU OROKORRAK

1.1.- Deialdia iragartzen da, ekainaren 5eko 113/1985 Foru Dekretuko 42.2.d) artikuluan aurreikusitakoarekin bat, Barañaingo Udalaren zerbitzura ariko den mantentze-lanetako ofiziala izateko zerrenda bat hauta-proben bidez osatzeko, Udalean jarraian aipatzen diren lanpostuetarako aldi baterako estaldura emateko helburuz: lorezaina, zurgina, elektrikaria, pintorea, igeltseroa, iturgina eta soldatzailea.

Izangaien zerrenda horrek bost urteko indarraldia izanen du, eta haren kudeaketa aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onesten dituen 814/2010 Foru Aginduan –abenduaren 31koa, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak emana– ezarritakora doituko da.

1.2.- Lanpostuaren ordainsariak enpresaren plantilla organikoan eta hitzarmen kolektiboan aurreikusitakoak izanen dira. Eginkizunak kategoría profesional horretarako aurreikusitakoak izanen dira.

Deialdi honen ondorioz izendatzen diren pertsonak beteko dituzte, besteak beste, ondoren agertzen diren eginkizunak, bai eta, oro har, gaur egun eta etorkizunean bere kategoría profesionalari atxikitakoak, eta lanbideen bilakaeraren, erabiltzen diren tresna eta baliabideen eta antolamendu sistemetan eta ematen diren zerbitzuetan gerta daitezkeen aldaketan ondorioz sor daitezkeenak ere:

- Lorezaintzako mantentze-lanak egitea, bai udal egoitzen barnean (barnealdeko landareak, apaingarriak...), bai kanpoaldean (parkeak, lorategiak...), zehaztapen teknikoen eta ezarritako lan-programaren arabera.
- Igeltserotzako mantentze-lanak egitea udal instalazioen eta eraikinen barnean (altzariak, bankuak, ateak, leihoak, eta abar) eta kanpoan (hormigoia nahastea; konpontze-lanak espaloi eta areketan; kutxatila; zulguneak betetzea; hiri altzariak, seinaleak, mugarriak, pibotak eta halakoak paratzea) zehaztapen teknikoen eta ezarritako lan-programaren arabera.
- Zurgintzako mantentze-lanak egitea, bai barnealdean (altzariak, bankuak, ateak eta abar), bai kanpoaldean (paratzea, muntatzea, bankuak konpontzea, haurrentzako parkeak, hiri altzariak eta abar).
- Elektrizitateari lotutako mantentze-lanak egitea, bai udal eraikinetan, bai kanpoaldean (argiak, eroanbideak, kaxa elektrikoak eta abar) zehaztapen teknikoen eta ezarritako lan-programaren arabera.
- Iturgintzako mantentze-lanak egitea, bai udal eraikinetan (iturgintzako eta berokuntzako zirkuituak, aparatu sanitarioak muntatzea, eta abar), bai kanpoaldean (ureztatze-zirkuituak paratzea, muntatzea eta desmuntatzea, ureztatze-programagailuak, horniketa- eta saneamendu-sareak eta abar), zehaztapen teknikoen eta ezarritako lan-programaren arabera.
- Pinturari lotutako mantentze-lanak egitea, bai barnealdean, bai kanpoaldean, zehaztapen teknikoen eta ezarritako lan-programaren arabera.



- Errementaritza eta soldadurako mantentze-lanak egitea, bai barnealdean, bai kanpoaldean (ateak, euskarriak, leihoak, barandak, bide-seinaleak, kale-argiak, hiri altzariak...), zehaztapan teknikoan eta ezarritako lan-programaren arabera.
- Hesiak, seinaleak, oholtzak eta halakoak paratzea, muntatzea eta desmuntatzea, bai eta ekitaldiak eta festak prestatzeko lanetan laguntzea ere.
- Eskatutako lana garatzeko behar diren materialen garraioari, eta zamalanei lotutako lanak egitea.
- Lan Arriskuaren Prebentzioari lotutako arauak betetzea.
- Laneko ekipoaren eta tresnen mantentze-lana eta antolaketa, baita horretan izandako edozein anomalia edo behar jakinaraztea ere.
- Egindako lanen gaineko txostenak egitea aldiaren behin.
- Herritarrari ematen zaion zerbitzua hobetzen laguntzea eta horretan kolaboratzea, ezarritako lan-programa betetzeak eta zerbitzuaren beharrak planteatzen dituen exigentzietara egokituz, aldi baterako izaeraz eta ordutegi-malgutasunari dagokionez.
- Arestian aipatutakoez gainera, bestelako lanak ere egitea, lanpostuak exijitzen dituen gaitasun eta trebetasun profesionalekin bat datozenak, ezarritako helburuak lortzeari begira eskatzen bazaizkio.

1.3.- Lan-jardunaldiaren erregimena zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta eskumena duten administrazio-organoei edozein unetan aldatzen ahalko dute.

2.- IZANGAIEN BETEBEHARRAK.

2.1.- Prozesu honetan parte hartu ahal izateko, izangaiek ondoko baldintzak bete beharko dituzte eskabideen epea bukatzen den egunerako:

- a) 16 urte beteta izatea eta erretiroko adina bete ez izana.
- b) Espainiako herritarra izatea, edo Europar Batasuneko beste estatu batekoa, edo langileen zirkulazio librea aplikatzen den eremuko estatu batekoa, Europar Batasunak sinatu eta Espainiak berretsitako nazioarteko itunak direla medio; orobat, espainiarren eta Europar Batasuneko beste estatuetakoa herritarren ezkontideek hartu ahal dute parte, zuzenbidez bereizita ez badaude; halaber, haien ondorengoek eta ezkontidearenek, zuzenbidez bereizita ez badaude, 21 urtetik beherakoak badira, edo gorakoak, haien kontura biziz gero.
- c) Lanpostuaren eginkizunetarako behar den gaitasun fisiko zein psikikoa izatea.
- d) Eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean, Batxilergo, bigarren mailako Lanbide Heziketa edo horien baliokidea den titulua edukitzea edo eskuratzeko baldintzetan egotea (hori lortzeko behar diren eskubideak bete direlako agiria aurkeztu).

Atzerrian lortutako tituluak badira, homologazioaren frogagiriaren jatorrizkoa edo kopia konpultsatua (notarioak edo administrazioak gauzatu) eduki beharko da.

Izangaiek alegatzen badute eskatutako kategorian aritzea ahalbidetzen dieten ikasketa baliokideak dituztela, baliokidetasun hori onartzen duen legezko edo erregelamenduzko



xedapena aipatu beharko dute, edo, bestela, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak hori egiaztatzeko emandako ziurtagiria aurkeztu.

e) Eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitua edo gabetua ez egotea eta administrazio publikoren baten zerbitzuetik bereizia ez izatea.

Espainiako nazionalitatea ez duten izangaiek zinpeko aitorpena edo hitzematea aurkeztu beharko dute, adierazteko ez dutela diziiplina-zehapenik edo kondena penalik beren estatuko funtzio publikoan sartzea galarazten dienik.

2.2.- Aipatu baldintza horiek eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako bete beharko dira, eta haiei eutsiko zaie prozedurak iraun bitartean.

2.3.- Baldintza horiek guztiak aldi baterako kontratatzeko hautatu eta deitzen diren izangaiek frogatu beharko dituzte kontratua formalizatu aurretik, esaten zaien unean.

2.4.- Aski justifikaturik dauden ezinbesteko kasuetan salbu, aipatutako agiri horiek aurkezten ez dituztenak ezin izanen dira kontratatu, eta ordura arteko egintza guztiak baliorik gabe geldituko dira, euren eskabidearen faltukeria dela-eta legokiekeen erantzunbeharra galarazi gabe.

3.- ESKAERAK.

3.1. Deialdian parte hartzeko eskabideak Barañaingo Udaleko erregistro orokorrean aurkeztu beharko dira (Udaletxe plaza, z.g., Barañain, Herritarrak hartzeko bulegoan, 08:30etik 14:00etara), edo Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 20ko 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan aipatzen diren aukeretako edozein erabiliz.

Eskaera posta bulego batean aurkeztuz gero, gutun-azal irekian egingo da, posta zerbitzuko langileak, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar ditzan.

Eskabideak I. eranskineko ereduari egokituko zaio; Barañaingo Udaleko Herritarra hartzeko bulegoan emanen dizute (Udaletxe plazan), eta Internet bidez ere eskuragarri dago: www.baranain.es

Eskabidean, parte-hartzaileek adierazi beharko dute eskaturiko baldintza guztiak betetzen dituztela, eskaerak aurkezteko azken egunean.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua eta eskatzen den titulazioarena edo eskabideak aurkezteko epea burutzen denerako hura erdiesteko maneran izanen dela adierazten den agiriarena aurkeztu beharko dituzte. Orobat, ES 84 2100 5181 14 2200064922 kontuan 9,60 euro sartu izanaren frogagiria, espedientea formalizatu eta azterketa eskubideak ordaintzeko. Tasa hori ez bada ordaintzen, izangaia bazterturik geldituko da.



4.- ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eskaintzaren jakinarazpenean eta Udaleko iragarki-oholean ezarritako epean aurkeztu beharko dira eskaerak. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina da. **Eskariak jasotzeko epea 2015eko urriaren 26an bukatuko da.**

5.- BEHIN BEHINEKO ZERRENDAK

Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan, Barañaingo Udaleko alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda onesteko, eta jendaurrean jarriko da Barañaingo Udalaren iragarki oholean, bai eta Udalaren webgunean ere.

Oholean agertzen denetik hasita, izangaiek bost egun balioduneko epea izanen dute erreklamazioak aurkezteko eta eskabidean egindako akatsak zuzentzeko

6.- BEHIN BETIKO ZERRENDAK

Erreklamazioak aurkezteko epea bukatu eta haiek ebatzi ondoan, Barañaingo Udaleko alkateak ebazpena emanen du izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrenda onesteko; hura Barañaingo Udalaren iragarki oholean eta Udalaren webgunean jarriko da jendaurrean, deialdi honetako zortzigarren oinarrian aipatzen den hautaproba egiteko eguna eta tokia adierazita.

Onartuen zerrendetan agertzea ez da aski deialdi honetan eskatutako baldintzak betetzen direla onartzeko. Izangaiek kontratazioa egiteko deia egiten zaielarik aurkeztu behar duten dokumentazioa aztertutakoan, denboran edo forman baldintzaren bat betetzen ez dela ohartuz gero, interesdunek deialdi honetan parte hartzeagatik dituzten eskubide guztiak galduko dituzte.

7.- EPAIMAHAIA.

7.1.- Epaimahaia honako kide hauek osatuko dute:

Mahaiburua: CONSUELO DE GOÑI DESOJO andrea, Barañaingo Udaleko Hirigintza Arloko zinegotzia.

Mahaikidea: IÑAKI NIETO GARCIA jauna, Barañaingo Udaleko Hirigintza eta Ingurumenaren Arloko ofizial igeltseroa.

Mahaikidea: JUAN IGNACIO IRISARRI ONA jauna, Barañaingo Udaleko Hirigintzako Brigadaren arduraduna.

Mahaikidea: IOSU ALZORRIZ PEREZ jauna, udal ingeniari laguntzailea.

Idazkaria: ESTHER GOICOECHEA MAEZTU andrea, Barañaingo Udaleko Hirigintza Arloko ofizial administraria.



7.2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote eta Barañaingo Udalari hala jakinarazi, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legean horretarako aurreikusiak dauden arrazoiak gertatzen direnean.

Izangaiek, halaber, zilegi dute mahaikideak errefusatzeari, inguruabar horietako bat izaten denean.

Epaimahaia aldatzen bada, mahaikideek parte ez hartzeko eta haiek errefusatzeko lege ezarritako kasuak direla-eta, jakinarazi egingen da, izangai onartu eta baztertuen zerrendekin batera.

7.3. Hautaprobea hasi baino lehen eratuko da epaimahaia.

Epaimahaia ezin izanen da eratu, ezta jardun ere, kideen gehiengo osoa gutxienez bildu gabe.

Halaber, epaimahaiaren eraketak balio izateko, mahaiburuak eta idazkariak bertan egon beharko dute.

7.4. Epaimahaiak gehiengoz ebatziko ditu deialdiaren oinarriak interpretatu eta aplikatzeko moduari buruz sor daitezkeen gorabehera guztiak.

7.5. Epaimahaiak aholkulari adituen laguntza eska dezake probarako. Aipatu aholkulariak beren espezialitate teknikoetan baizik ez dira ariko eta haietan oinarriturik bakarrik emanen diote laguntza epaimahaiari.

8.- HAUTATZE ESPEDIENTEAREN GARAPENA.

8.1.- Izangaiei Barañaingo Udalaren iragarki-oholean eta webgunean jarritako iragarkiaren bidez deituko zaie, eta hori aski izanen da hitzordurako deituak direla uler dezaten.

8.2.- Hautapen-prozesuan, BI PROBA egingen dira.

Lehenbizikoa proba teoriko-praktikoa izanen da, eta horretan idatziz erantzun beharko da 50 galdera biltzen dituen azterketa bat; galdera bakoitzean hiru erantzun agertuko dira, eta bat bakarra izanen da baliozkoa. Erantzun baliozko bakoitzak puntu bateko balorazioa izanen du; erantzun okerrekin galdera bakoitzari emandako balorazioaren 0,50eko zigorra izanen dute.

Gehienez, 50 puntuko balorazioa izanen du probak. Proba gainditzeko, 25 puntu lortu beharko dira gutxienez. Bigarren proba, gehienez, lehen ariketa gainditu dutenen 25 puntuazio onenak igaroko dira.

Bigarren proban ariketa bat edo batzuk egingen dira, eta helburua izanen da egiaztatzea lan horretan berez erabiltzekoak diren tresnak behar bezala erabiltzen eta ezagutzen direla, baita mantentze-lanetako lanpostu batean eskatzen diren lanak ere. Gehienez, 50 puntuko balorazioa izanen du probak. Proba gainditzeko, 25 puntu lortu beharko dira gutxienez.

8.3.- Probak egiteko deialdi bakarra egingen da, eta izangaiek NANA, pasaporte edo gidabaimena ekarri beharko dute; baztertutik geldituko dira etortzen ez diren izangaiek, bai eta aipatutako dokumentu horietakoren baten bidez nortasuna ziurtatzen ez dutenak ere.



8.4.- Lehenbiziko proba baloratuta, Udalaren iragarki-oholean eta webgunean argitaratuko da izangaiek lortutako puntuazioa, eta bigarren ariketaren data eta ordua ere bai, lehenbiziko proba gainditu dutenentzat (gehienez 25 izangai).

Bigarren proba baloratu eta gero, iragarki-oholean eta udal webgunean argitaratuko da izangaiek lortutako puntuazioa.

9. PROBA GAINDITZEN DUTENEN ZERRENDA ETA DEIA.

9.1. Hautapen-prozesua bukaturik, epaimahaiak jendaurrean jarriko du, Barañaingo Udalaren iragarki oholean eta udal webgunean, proba gainditu duten izangaiei zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeraren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzarrari helaraziko dio, baita hautapen-prozesuaren espediente osoa ere, behin betiko onetsi dezan.

Bi izangai edo gehiago puntuetan berdindurik izanez gero, izangai zaharrenaren alde hautsiko da berdinketa.

9.2. Gainditu duten izangaiei gertatzen diren premien arabera dei egiten ahalko zaie, deialdi honetako oinarrietan ezarritakoari eta aplikatzekoak diren gainerako arauak jarraituz.

9.3. Kontratudunak Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean sartu eta bertan afiliatuko dira; beraz, haien kontu izanen dira dagokien kuota eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipena, bidezko diren kopuruetan.

10 - ERREKURTSOAK

Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bat aurkez daiteke, aukeran:

a) Berraztertze errekurtsua, egintza gauzatu duen organoari berari zuzendua, hilabeteko epean, hura jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

b) Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, errekurtsuaren xedeko egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita.

c) Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik hasita.

Epaimahaiaren egintzen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkez daiteke, Tokiko Gobernu Batzarrari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia jakinarazten denetik hasita

I. ERANSKINA

IZENA		
NANa/NORTASUN AGIRIA	JAIOTEGUNA [URTEA/HILABETEA/EGUNA]	JAIOTERRIA
NAZIONALITATEA	EGUNGO HELBIDEA (KALEA, ZENBAKIA, ESKAILERA, SOLAIRUA)	
POSTA KODEA / HERRIA	TELEFONOAK	HELBIDE ELEKTRONIKOA

AZALTZEN DUT:

Ez dudala karguan aritzea eragotziko didan inolako eritasunik edo akats psikiko zein fisikorik.

Indarra duten xedapenetan ezarritako ezintasunik ez dudala.

Ez naizela diziplinako espediente bidez inongo administrazio publikoren zerbitzutik baztertua izan, ez eta diziplinako kaleratze bidez bidalia ere, eta ez nagoela desgaitua eginkizun publikoak betetzeko.

Deialdian eskatzen den titulazioaren jabe naizela.

Eskabideak aurkezteko epea burutzen den egunean eskatutako baldintza guzti-guztiak betetzen ditudala.

Eskabideari agiri hauen fotokopia konpultsatuak erantsi dizkiodala:

–Nortasun agiri nazionala.

–Aipatutako titulazio akademikoa.

– Espedientea formalizatzeko eta azterketa eskubideetarako 9,60 euro ordaindu izanaren ziurtagiria.

ESKATZEN DUT:

Onartua izatea hautaprobaren bidez izangai zerrenda bat osatzeko deialdian Barañaingo Udalaren zerbitzuan mantentze-lanetako ofizialaren lanpostuetan aritzeko aldi baterako kontratuaren bidez

Barañainen, 20.....(e)koaren(e)an
(Sinadura)

Datuen babesa. Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 1999ko abenduaren 13ko Lege Organikoan ezarritakoa betetzeko, aditzera ematen dizugu inprimaki honetan ematen diren datu pertsonalak hautapen prozeduran Udalak dituen eskumenak erabiltzeko baizik ez direla erabiliko eta Barañaingo Udalaren datu basea osatzen duten fitxategiei batuko zaizkiela. Fitxategietan sartu, datuak zuzendu eta ezabatzeko eta haien aurka jotzeko eskubideak Barañaingo Udalarari zuzendurik erabiltzen ahalko dituzu, Erregistro Orokorreara joz (Herritarra hartzeko bulegoa, Udaletxeko plaza, z.g.).